



BAZTERREZINAK

*Lurra, memoria eta etorkizuna lantzen
duten emakume palestinarrek*

INGURUMENA ETA PALESTINAKO
ERREFUXIATUEI BURUZKO
KUADERNO PEDAGOGIKOA



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD



GIPUZKOA
Foru Aldundia · Diputación Foral



comité autonómico
unrwa
euskadi

EDIZIOA, KOORDINAZIOA ETA EGILETZA
UNRWA Euskadi

ITZULPENA
BELAXE Koop.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
Baixa Studio

ISBN 978-84-09-80605-8
Lege Gordailua M-27320-2025

Euskadi, 2025eko ekaina.
www.unrwaeuskadi.org



Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzako Lankidetzak eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantza-laguntzarekin egin da.



Argitalpenaren edukia UNRWA Euskadiren erantzukizun eksklusiboa da, eta ez du zertan erakunde finantzatzaileen iritzia islatu.

Doako alea. Debekatuta dago merkaturatzea.

Aurkibidea

5	Sarrera
7	Koaderno pedagogikoaren aurkezpena: helburua, hartzaileak eta erabilerak
8	UNRWA
8	UNRWA Euskadiren konpromisoa
9	Palestinako errefuxiatuak
10	Aurrekaririk gabeko suntsipena: Gazako zerrendako gatazkaren ingurumen-inpaktuak
21	Lurra defendatzen duten emakume palestinarrak:
22	Israa Abushaba
23	Bisan Abu Hawash
24	Inaas Al Ghoul
25	Bayan Iqtait
26	Eranskina: ikasgelarako lan-fitxak

Sarrera

Gizaki guztiak, bizi diren lekuko ingurumenaren mende daude. Ingurune seguru, garbi, osasungarri eta jasangarri bat behar-beharrezkoa da giza eskubideen aukera zabalaz bete-betean gozatzeko; besteak beste, bizitzeko, osasunerako, elikadurarako eta ura eta saneamenduak eskura izateko eskubideez.

Ingurumen osasungarrikeriaren ezean, ez gara gai gure nahiak betetzeko. Eta, beharbada, ez dugu lortuko giza duintasunaren gutxieneko irizpideak betetzea ere.

Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren 2021eko 48/13 ebazpenak eta Batzar Nagusiaren 2022ko 76/300 ebazpenak **ingurumen garbia, osasungarria eta jasangarria izateko giza eskubidea** aitortzen dute. Aitorpen horretatik abiatuz, txosten honen helburua da Palestinako errefuxiatuen kasuan eskubide horren erabilerari eragiten dioten urraketak zerrendatzea eta deskribatzea.

Palestinako errefuxiatuek egunero pairatzen dituzten giza eskubideen urraketa guztien artetik, ingurumen garbia, osasungarria eta jasangarria izateko giza eskubidearen urraketa da gutxien aipatzen denetako bat.

Ikusezintasun horri aurre egiteko, UNRWA Euskadik koaderno hau argitaratu du. UNRWA Euskadik herritartasun globalerako hezkuntzan aplikatzen duen giza eskubideetan oinarritutako ikuspegian (GEOLan) oinarritzen da argitalpena, eta historikoki urratuak izan diren Palestinako errefuxiatuen **eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak —DESCA gaztelaniaz—** jartzen ditu erdigunean.

Gaztelaniazko inDESCArtables izenburua urraketa horiez ari da, eta azpimarratzen du lurraren defentsan diharduten emakume palestinarren rola eta ekarpena ezinbestekoak direla eskubide horiek, batez ere ingurumenekoak, defendatzeko eta zaintzeko. Lurraldearen defentsarako horiek duten eginkizun aktiboa alde batera uzteak edo baztertzeak esan nahi du errealitatea bidegabe eta genero-ikuspegi gabe irudikatzea.

Genero-ikuspegi horrekin, koaderno honek **Gazako zerrendaren egoera** aztertzen du (**Zisjordaniako egoera alde batera utziz gabe, Ekialdeko Jerusalem barne**), arreta berezia jarritz **2023ko urriaren 7tik 2025eko urriaren 13ra bitarteko** aldian (su-etenerako akordioa sinatzea). Denbora horretan, etengabeko indarkeriaren ingurumen-ondorioak muturreko mailetara iritsi dira (ur- eta saneamendu-azpiegituren kolapsoa, lurzorua eta airearen kutsadura, hondakin toxikoen pilaketa...), eta horrek larriki urratu du ingurumen osasungarriko eskubidea.

Koaderno honek inpaktu horiek ikusarazi nahi ditu, arreta larrialdi humanitarioan jarritz, baita **UNRWAk eremuan egiten duen laguntza-lanean** ere, azpimarratuz **lurraldea defendatzen duten emakume palestinarrek ezin direla baztertu** ingurumenerako giza eskubidea babestean.



© 2025 UNRWA Photo
by Hussein Jaber

Koaderno pedagogikoaren aurkezpena: helburua, hartzaileak eta erabilerak

Koaderno pedagogiko hau **hezkuntza-baliabide** bat da, giza eskubideekin, genero-berdintasunarekin, ingurumen-jasangarritasunarekin eta herritartasun globalarekin lotutako gaiak ulertzen eta aztertzen lagunduko duten edukiak, jarduerak eta materialak eskaintzeko diseinatua.

Informazioa transmititzeaz gain, **hausnarketa kritikoa, eztabaida eta erabiltzen dutenen parte-hartze aktiboa** sustatzen dituen tresna bat edukitzeko beharrari erantzuten dio.

Honako hauei zuzenduta dago batez ere:

- **Hainbat hezkuntza-mailatako** (DBHko, batxilergoko eta unibertsitateko) **ikasleei**, partaidetzako ikuspegi inklusibo batetik errealitate globaletara hurbiltzeko bitarteko bat izan dezaten.
- **Irakasleei**, ikasgelan zuzenean aplikatzeko baliabide praktikoak eta jarduerak izan ditzaten.
- **Guraso-elkarteei eta hezkuntza-komunitateko beste eragile batzuei.**

Justizia soziala, berdintasuna eta jasangarritasuna sustatzeko inplikazioa eta interesa dutenei.



Erabilera-gida azkarra

Irakurri testuingurua

Ulertu egoera eta funtsezko gaiak hasi aurretik

Ezagutu historiak

Lekukotza bakoitzak QR bat du, protagonistaren bideoa ikusteko

Egin jarduerak

Jarri praktikan fitxa didaktikoekin ikasitakoa

Hausnartu eta eztabaidatu

Partekatu ideiak, aztertu eta ikuspegi kritikoak zalantzan jarri

Konektatu zure ingurunearekin

Erlazionatu ikasitakoa zure errealitatearekin

Helburua: Palestinako errefuxiatuen giza eskubideen, berdintasunaren, justiziaren eta jasangarritasunaren inguruan ikastea, hausnartzea eta jardutea.

UNRWA

Palestinarr Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia (UNRWA) NBEko Batzar Nagusiak sortu zuen 1949an, Palestinako iheslariei laguntza eta babesa emateko; alegia, 6 milioi pertsonari.

Berorren misioa da Palestinako iheslariei laguntza eta babesa ematea, bere bost operazio-eremuetan —Jordanian, Libanon, Sirian, Zisjordanian (Ekialdeko Jerusalem barne) eta Gazako zerrendan—, bizi duten egoera zailari erantzuteko bidezko eta behin betiko irtenbidea iritsi bitartean.

Agentziak arlo hauek jorratzen ditu, gatazka-garaietan zein nolabaiteko barealdietan: **osasuna, hezkuntza, babesa, gizarte-zerbitzuak, kanpamentuen azpiegitura eta hobekuntza, mikrofinantzak, laguntza humanitarioa eta larrialdietarako laguntza**. Bederatzehun instalaziotik gora kudeatzen ditu, eta **hogeita hamar mila lagunek** baino gehiagok egiten dute lan haietan —% 99 palestinarrak dira—.

UNRWA agentzia estatu kideen borondatezko ekarpenen bidez finantzatzen da ia erabat.


UNRWA euskadiren konpromisoa

UNRWA Euskadi ^[1] 2006. urtean sortu zen, funtsezko bi helbururekin: euskal gizarteari Palestinako iheslarien egoeraren berri ematea eta UNRWAK egiten duen lan humanitarioa eta babes-lana zabaltzea. Horretarako, **bi alorretan** aritzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan:

- Laguntza Humanitarioa eta Garapena
- Herritartasun Globalerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa

Herritartasun Globalerako Hezkuntzan haxe da UNRWA Euskadiren jardueren xedea: **kontzientzia kritikoak suspertzea eta herritarrei tresnak ematea gizartean parte hartu eta eraldaketa eragiteko**. Institutuetan, lanbide-heziketako ikastetxeetan, unibertsitateetan, emakumeen etxeetan eta bestelako elkarteetan esku hartzen da, Palestinako errefuxiatuen egoera humanitario larriaren aurrean euskal gizarte mobilizatzeko.

Zeharkako ardatz gisa, erakundeak **giza eskubideen, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren, bake-kulturaren eta genero-berdintasunaren sustapenean oinarrituta betetzen du bere lana**.



Palestinako errefuxiatuak

Arabiar-israeldar gerraren ondoren (1948), Palestinako 700.000 herritarrek baino gehiagok alde egin behar izan zuten etxetik, eta Ekialde Hurbileko beste herrialde batzuetara edo euren herrialdeko beste ingurune batzuetara jo, babes bila. Palestinako biztanleriaren exodo masibo hari **Nakba** deritzo («hondamendia», arabieraz). Gaur egun ia **6 milioi lagun**ek nozitzen dute etengabeko gatazka-giroa, eskubideen urratze sistematikoa eta oinarritzko beharrak ezin asea. **2025ean 77 urte egingo dituzte, jada, errefuxiatuta.**



© 2025 UNRWA. Ez da egiletzarik aipatzen argazkilariaren segurtasunagatik.

Aurrekaririk gabeko suntsipena: Gazako Zerrendako gatazkaren ingurumen-inpaktuak

koaderno honetako protagonistak ezagutu aurretik, garrantzitsua da bizi diren eszenatokia ulertzea. Kapitulu honek Gazako Zerrendako egungo egoeraren **ikuspegi orokorra** ematen du, 2025eko urriaren 13an (Israelen eta Hamasen arteko su-etenerako akordioa sinatu zen unea, 2 urteko erasoaldiaren ondoren), eta ikuspegi berezia ematen du gatazkaren **ingurumen-inpaktuei** eta horiek Palestinako errefuxiatuen eguneroko bizimoduari nola eragin dioten eta nola eragiten dioten.

Koadernoan ikusiko dugunez, azpiegituren suntsiketak, blokeoak eta okupazioak krisi humanitario larria eragiteaz gain, ingurumenari ere kalte itzulezinak eragiten dizkiote: uraren kutsadura, lur emankorren galera, baliabide eskasia eta erakunde batzuek **ekoizidio** deitzen dutena.

Israel Gazako zerrendan gaur egun egiten ari den erasoaldiaren inpakturik suntsitzaileena hildakoak dira zalantzarik gabe; baina, horrez gain, bi urteko indarkeria bortitzaren ondoren, **ingurumen-krisi handi bat** ere piztu da, herritarren osasunean zuzeneko ondorioak dituena. Nazio Batuen Ingurumen Programak (NBIPk) argitaratutako atariko ebaluazio baten arabera, gerraren **ingurumen-inpaktuek ez dute aurrekaririk**; izan ere, lurzorua, ura eta airea gero eta gehiago ari dira kutsatzen eta ekosistema naturaletan kalte konponezinak eragiteko arriskua dago. Ingurumen-degradazioaren eta berotegi-efektuko gasen emisioen **ondorioek urte askoan eragingo diete eskualdeko eta inguruetoako pertsoneri eta ekosistemei**.

Zenbait erakundek inpaktu horiek ekoizidua direla diote; hots, ingurumena nahita kaltetzeko estrategia, krisi humanitarioa larriagotzearren eta, epe luzera, etorkizuneko bizitza eta herritarren osasuna mehatxatzearen.

2023ko urriaren 7tik 2025eko urriaren 8 bitartean, gutxienez 67.183 pertsona hil eta 169.841 baino gehiago zauritu dituzte, Gazako Osasun Ministerioak emandako datuen arabera, eta beste milaka pertsona desagertuta daude.

Azken bi urteetan, Gazako zerrenda **suntsitu** egin dute, 1,9 milioi pertsona inguru (biztanleriaren % 90) **nahitaez desplazatu** behar izan dira, **azpiegituren % 83 baino gehiago txikitu** dira (2025eko irailaren 23an) eta **elikagai- eta ur-falta nabariak** izan dira. Erasoaldiak **61 milioi tona eraikin-hondakin** baino gehiago utzi ditu, material arriskutsuekin eta lehertu gabeko munizioekin kutsatuak.

Elektrizitate-sistemen suntsiketak, erregaien eskasia larriak eta ordezeko pieza garrantzitsuak inportatzeko baimena ukatzeak are gehiago geldiarazi dute geratzen diren funtsezko zerbitzu bakanen jarduna, ospitaleetako sorgailuak eta ura gatzgabetzeko instalazioak barne.

2025eko urrian, Gazako Zerrendak **gosete egoera** aitortu zuen bere gobernazioetako batean, eta ohartarazi zuen lurralde osoa har zezakeela, KPlaren eta NBEko agentzien arabera. Desnutrizio-kasuak ugartzen ari dira, eta laguntza humanitarioaren sarrera oztopatzen eta gosea gerrarako arma gisa erabiltzen jarraitzen dute Israelgo agintariek. Larrialdiko elikagai-laguntzarekiko mendekotasuna erabatekoa da, nekazaritza-sistema eta beste ekoizpen-baliabide batzuk suntsitu egin direlako, eta, horren ondorioz, tokiko merkatua erabat hustu delako.

Laburbilduz, **Gazan bizitzeko oinarritzko beharrak, bizitokia, ura, elikagaiak eta ingurumen osasungarria, jada ez daude eskuragarri herritar guztientzat.**

ASPALDITIK SETIATUA DAGOEN EKOSISTEMA

Hainbat hamarkadatan, bere **ekosistemen degradazioa eta haiekiko presioa** jasan behar izan ditu Gazako ingurumenak, hainbat arrazoiengatik: eraso errepikakorrek, urbanizazio azkarra, biztanle-dentsitate handia, baldintza politikoak eta eskualdeak klima-alaketarekiko duen ahulezia.

Gazako ur-hornidura oso ahula izan da betidanik. Israelek 2007an **blokeoa** abiatu zuenetik, erabilera bikoitzeko materialen sarreran ezarritako are gehiago zaildu dute hondakin-urak tratatzeko instalazioak eta gatzgabetzeko plantak elikatzeko eta mantentzeko beharrezko material eta erregaien inportazioa, eta horrek larriagotu egin du ur-eskasia.

Gainera, erasoaldi ugariak atzeratu egin dituzte funtsezko instalazio horien eraikuntza eta funtzionamendua. Atzerapen horrek **eragin handia** izan du **uraren kalitatean eta kantzitatean**

Era berean, instalaziorik ez dagoenez, tratatu gabeko hondakin-ur asko isuri dira Gazan eta Gazatik, eta horrek lurpeko eta itsasoko urak kutsatu ditu urte askoan. 2010eko hamarkadan, Gazako zerrendatik Mediterraneo itsasora isurtzen ziren tratatu gabeko edo partzialki tratatutako hondakin-uren kopuruak gora egin zuen etengabe: 2012an egunean 90.000 m³ izatetik 2016an 100.000 m³ izatera igaro zen, eta 2018an, berriz, egunean 110.000 m³ izatera.

Gainera, Gazako biztanleria **kostaldeko akuiferoaren** (lurpeko ur-iturriaren) erauzketaren mende dago neurri handian. Denborarekin, eta azken bi urte hauetan jasandakoa alde batera utzita, ur-masa hori **kutsatu** egin da erauzketa-praktika jasanezinen ondorioz; gehiegizko ponpaketagatik, adibidez. Horren eraginez, maila freatikoa itsas mailatik behera jaitsi da, eta **itsasoko ura sartzearen ondorioz**, handitu egin da lurpeko deposituen gazitasuna. Itsasoko



© 2025 UNRWA. Ez da egiletzarik aipatzen argazkilariaren segurtasunagatik.

ura akuiferoan sartzea «hondamendi ekologikoa eta klima-aldaketarekiko ahulezia handia» dela adierazi du Munduko Bankuak.

Era berean, akuiferoako uraren kalitateari kalte egin diote **nekazaritzako pestizidek** eta gaizki tratatutako **hondakin-urek** eragindako kutsadurak, eta, horren ondorioz, OMEk edateko urarentzat gomendatutako muga baino sei aldiz handiagoak izan dira **nitratomailak**. Kloruro-kontzentrazioak ere handiak izan ziren azken hamarkadan, eta hori bereziki arriskutsua da haurrentzat eta emakume haurdunentzat.

Kostaldeko akuifero kutsatuaz gain, bolumen txikiko hiru gatzgabetze-instalazioren bidez bermatu izan da **herritarren ur-hornidura**: Mekorot enpresa israeldarraren iturriko ura, UNRWA eta iturri pribatuak (udal-hornitzaileek eta hornitzaile pribatuek eskala txikiko gatzgabetze-unitateak zituzten, lurrazpiko putzuek —haietako batzuk eguzki-energia fotovoltaikoz elikatuak— eta zisterna-kamioiek hornituak).

Munduko Bankuaren ikerketa batek erakutsi duenez, **oso mugatua da eskura dagoen ur-kopurua**; izan ere, 2023ko urriaren 7a baino lehen ere, **Gazako biztanleen % 6k bakarrik zuen kanalizatutako eta segurtasunez kudeatutako edateko ura eskuratzeko aukera**.

Hondakin solidoen kudeaketari dagokionez, 2023ko urria baino lehen, NBIPren datuen arabera **1.726 tona hondakin solido sortzen ziren egunero**. Hondakin solido horien kudeaketak gero eta erronka handiagoak zituen: 3,9 milioi tona hondakin zabortei nagusian deuseztatzen ziren, zeinak bere ahalmenaren gainetik jarduten zuen. Suteek eta hondakin solidoen pilaketek gero eta kezka handiagoa sortzen zuten, ingurumenean, osasunean eta gizartean izan zitzaketen inpaktuengatik.

2007tik ezarritako blokeoaren ondorioz, **erregaien eskasia nonahi izan da Gazan eta elektrizitate-etenaldiak etengabeak eta egunerokoak ziren 2023ko urria baina lehenago**. Gaza energia elektrikoaren lehen mailako hiru iturriren mende egon da tradizionalki: Israelgo elektrizitate-konpainia, Gazako planta bakarra eta Egiptoko sare elektrikoa. Egungo eskalada hasi aurretik, Gazako zerrendako elektrizitate-eskariaren % 35 baino gutxiago asetzen zen Gazako plantaren bidez, haren edukiera mugatua baitzen. Neurri



© 2025 UNRWA Photo
by Hussein Jaber

handi batean, Israelen elektrizitate-inportazioen mende zegoen Gaza. Hornidura elektriko desegoki horrek hainbat hamarkadatan iraun du, eta **eskasia kronikoa** eragin du.

Adibidez, NBE-OCHaren datuen arabera, 2020-2021ean, biztanleek batez beste 13 elektrizitate-ordu izan zituzten egunean, 2022an 12 ordukoa izan zen batezbestekoa, eta 2023an (urriaren 7a baino lehen), egunean 10 ordukoa. Elektrizitate-etenaldiak bereziki zorrotzak ziren neguko eta udako gailur-aldietan. Bestalde, horniduren eskasiaren ondorioz, Gazako gatzgabetze-plantak eta ura tratatzeko plantak beren ahalmenaren azpitik ari ziren.

Gazako **nekazaritza-ekoizpenak**, urriaren 7a baino lehen, elikagaien horniduraren eta herritarren nutrizio-beharren ehuneko txiki bat baino ez zuen estaltzen, baina lur haiek funtsezkoak ziren tokiko ekonomiarako (gutxienez % 10 ziren), eta Palestinako familia askori ematen zizkieten diru-sarrerak.

Hala ere, urteetan zehar, araudi-faltaren ondorioz, lurra hondatu egin dute nekazaritza-jarduera intentsiboek. Gainera, beste iturri batzuek eragindako uraren kutsadurari **nekazaritzako kimikoak iragazteagatik** lurpeko uretan gertatutakoa gehitu behar zaio. Ondorioz, uraren kalitatea txarra da, eta gizakien osasunari eta nekazaritzako produktibitateari eragiten die.

Kutsadura horrek eta klima-aldaketaren ondorioek aldaketak eragin dituzte **lehorte-ereduetan**, eta, horrenbestez, murriztu egin da nekazaritza-produkzioa. Horren guztiaren eraginez, areagotu egin da Gazako biztanleek inportatutako elikagaiekiko duten mendekotasuna urteetan zehar.



© 2025 UNRWA. Ez da egiletzarik aipatzen argazkilariaren segurtasunagatik.



© 2025 UNRWA. Ez da egiletzarik aipatzen argazkilariaren segurtasunagatik.

AURREKARIRIK GABEKO SUNTSIKETA

Kalkulatu denez, 2023ko urriaren 7tik 2025eko urriaren 13 arte 80 milioi tona hondakin baino gehiago sortu dira Gazan. UNOSATen arabera, egitura guztien % 81 suntsituta edo kaltetuta daude, eta bide-sarearen % 77 (lehen, bigarren eta hirugarren mailako errepideak) kaltetuta edo suntsituta geratu dira.

Hondakinek **arriskuak sortzen dituzte gizakien osasunerako eta ingurumenerako**, hautsagatik eta lehertu gabeko lehergailuekin, amiantoarekin, hondakin industrial eta medikoekin eta beste substantzia arriskutsu batzuekin kutsatuta daudelako. UNOSATEk kalteei buruz egindako azken ebaluazioen arabera, 22 urte beharko dira hondakin guztiak garbitzeko.

Ur-horniduraren, saneamenduaren eta higieనేaren sistemak hondatuak daude ia erabat. Uraren eta saneamenduaren azpiegituren % 89 birrindu edo partzialki kaltetu dira, eta hondakin-urek hondartzak, kostaldeko urak, lurzorua eta ur geza kutsatzen dituzte, patogeno, elikagai, mikroplastiko eta substantzia kimiko arriskutsu ugarirekin. Horrek berehalako eta epe luzeko arriskua dakar herritarren osasunerako, itsas bizitzarako eta laborantza-lurretarako.

Gainera, OCHak adierazitakoaren arabera, desplazamendu-aginduen eta sarbide-murrizketen ondorioz, **ur- eta saneamendu-instalazioen % 72 Israelek militarizatutako eremuan daude orain**, edo 2025eko martxoaren 18tik **desplazamendu-agindua jaso duten eremuetan**.

Etheen % 96ek uraren alorreko segurtasun-gabezia nozitu dute, eta % 75etan edateko uraren segurtasun-mailak okerrera egin du.

Hondakin solidoak kudeatzeko sistema oso kaltetua dago. 2025 eko maiatzean Gazako hondakin solidoak kudeatzeko sei instalazioetatik bost kaltetuta zeuden. NBIPren arabera, 2023ko azaroan, 1.200 tona zabor pilatzen ziren, egunero, kanpalekuen eta babeslekuen inguruan. 2025eko maiatzean, **250.000 tona hondakin solidotik gora dago, jada, pilatuta**.

Pilatze horrek baldintza ezin hobeak sortzen jarraitzen du, herritarren artean **gaixotasunak zabaltzeko**, intsektuak eta karraskariak erakarriz eta osasun publikorako mehatxu larria izanez. Gainera, hondakin solidoen bilketa erabat eten da desplazamendu-agindupean dauden eremu guztietan.

Gazako zentral elektrikoaren eta Israelen **energia-hornidura** berehala eten ziren 2023ko urriaren ondoren. Erregaiaren eta elektrizitatearen hornidura eteteak ondorio orokorrak izan ditu arreta medikoan, uraren tratamenduan eta etxeko bizitzan, Gazako zerrenda osoan, bereziki hiriguneetan, hala nola Gaza hirian eta Gazako iparraldean.

Elektrizitate-faltak **ura tratatzeko plantak geldiarazi ditu**, eta horrek ingurumenaren degradazioa eragin du, tratatu gabeko hondakin-urak eta edateko uraren eskasia direla eta.

Janaria prestatzeko **gas-eskasia** dela eta, familiek egurra, plastikoa eta hondakinak erre behar izan dituzte haren ordez, eta arriskuan jarri dira, batez ere, emakumeak eta haurrak. Litekeena da horrek, suteekin eta erregaien erreketarekin batera, Gazako **airearen kalitatea** nabarmen murriztu izana —baina, ez dago daturik—.

Gazako biztanle-dentsitate handiko guneeetan, **metal astunak eta substantzia kimiko lehergarriak dituzten munizioak** hedatu dira, eta lurzorua eta ur-iturriak kutsatu dituzte. Gizakien osasunerako arriskutsua da hori, eta luze iraungo du liskarrak amaitu ondoren ere. Leheratu gabeko munizioa arrisku bereziki larria da haurrentzat.

Nekazaritza-sektorea, Gazako ekonomiaren % 10 inguru osatzen zuena urriaren 7a baino lehen, **suntsituta geratu da**, eta **bertako elikagaien ekoizpena geldiarazi du**. Suntsipen-maila hori ez da soilik azpiegituren galeragatik gertatu, baizik eta Gazako nekazaritzako elikagaien sistema eta bertako baliabide naturalak kolapsatu direlako.

FAOk eta UNOSATEk egindako ebaluazio baten arabera, 2025eko abuztuan, Gazako nekazaritza-lurren % 1,5 baino ez zegoen laborantzarako prest, eta 2025eko apirilean, berriz, % 4,6. % 98,5 kaltetuta zeuden, nekazariarentzat eskuraezinak ziren (desplazamendu-aginduak eta Israelen zona militarizatuak eta bazterketa-eremuak zirela eta), edo biak batera. Gainera, nekazaritzako ur-putzuen % 83 baina gehiago kaltetu dira.

Nekazaritzako lurrei, lurzoruari, abereei eta zuhaitzei egindako kalteek eragin handia izan dute elikagaien ekoizpenean eta segurtasunean. PNUMAren arabera, 2025eko irailaren 23ko txostenean, bonbardaketen intentsitatea kontuan hartuta, Gazako nekazaritza-lurrak metal astunekin eta ekipo eta munizio militarrekin lotutako beste substantzia kimiko batzuekin kutsatuta egongo lirатеke (baieztatzeko dagoen informazioa soilik, landa-laginketa baten faltan).

© 2025 UNRWA Photo
by Hussein Jaber





© 2025 UNRWA. Ez da egiletzarik aipatzen argazkilariaren segurtasunagatik.

Elikagaiak ekoizteaz arduratzen den sektore bat desagerrarazteak, **bizibideak galtzea** ez ezik, **nortasun kulturala eta lurrarekiko lotura galtzea** ere badakar urte askoan elikagaien segurtasunik ezari aurre egin behar izan dioten biztanleentzat, hala nola nutrizio- zein kultura-balioaren duten olibondoekiko lotura.

NBIPren arabera, datu gutxi dago erasoaldiak itsas ekosistemetan, kostaldeko eremuetan eta arrantzan duen eraginari buruz. Itsasoko urak aztertzea ezinezkoa bada ere, ia segurua da handitu egin dela tratatu gabeko hondakin-urek, hondakin solidoek eta munizioek eragindako itsasoko kutsadura. Aurreko erasoaldietan, hondakin-urekin kutsatutako kostaldeko uretan patogenoak dokumentatu dira Gazako kostaldeko uretan, parasito gastrointestinalak barne, gizakiengan gaixotasun larriak eragin ditzaketena, ura olgetarako erabiltzean eta itsaski kutsatuak jatean gaixotu baitaiteke jendea.

Itsasoko ingurumenari eta **arrantza-industriari** egindako kalteek **elikagaien segurtasunari** ere eragingo diote Gazan. Israelek arrantzarako ezarritako mugak gorabehera, elikagai- eta enplegu-iturri garrantzitsua zen hura (2023an 3.700 pertsona ingururi eman zizkien zuzeneko bizibideak). Itsasoko kutsadura eta Gazako arrantza-ontzidiaren suntsipen fisikoa dela eta, gorabeherak izan daitezke horretan.

Era berean, kostaldeak kalte handiak jasan ditu etengabeko bonbardaketan eta lehorreko

© 2025 UNRWA Photo by Hussein Jaber





© 2025 UNRWA. Ez da egiletzarik aipatzen argazkilariren segurtasunagatik.

operazioen ondorioz. Gainera, bonbardaketen intentsitatea dela eta, zentzuzkoa da pentsatzea lehertu gabeko arma eta lehergailuen hondarrak daudela hondartzetan, kostaldean zehar eta kostaldetik gertu dauden uretan.

UNRWArekin EKINTZA

2023ko urriaz geroztik, UNRWak **larrialdiko jarduerak** egin ditu **uraren, saneamenduaren eta higiearen arloan** Gazako zerrenda osoan. Jarduera nagusiak honako hauek dira: ur-putzuetan eta gatzgabetze-sistemetan esku-hartzea eta mantentze-lanak egitea, eta ura zisterna-kamioien eta botilako uraren bidez hornitzea. Gainera, UNRWak higie-kidak banatzen jarraitzen du, eta bere aterpeetan eta ezarlekuetan higiea zaintzen, garbiketa-horniduren, hondakin solidoen kudeaketa komunitarioaren eta izurriteen kontrolaren bidez.

Egunero, UNRWako taldeek **3 milioi litro ur hornitzen dituzte batez beste, eta 200 tona hondakin solido bako bako biltzen**. Gazan, guztira, UNRWak laguntza ematen die uraren sektorearen % 29ri, saneamenduaren sektorearen % 75i, higiearen sektorearen % 57ri eta hondakin solidoen kudeaketaren sektorearen % 39ri. UNRWaren ur-hornidurari eta hondakin solidoen biltzetari esker, hilean 420.000 pertsona inguruk jasotzen dute laguntza.

UNRWak hondakin solidoak biltzeko eta lekualdatzeko zerbitzuak ematen jarraitzen du, ahal den guztietan. 2025 urriaren 1etik 15era, UNRWako saneamendu-taldeek 2.500 tona hondakin solido inguru bildu zituzten, eta izendatutako aldi baterako zabortegetara eraman. 2025eko maiatzean, UNRWako taldeek 100 erregistro-putzu inguru garbitu zituzten, eta 40.000 pertsonari baino gehiagori eman zieten zerbitzua Gazako hainbat lekutan, nahiz eta norbera babesteko ekipamendu eta mantentze-lanetarako tresna gutxi izan.

Era berean, UNRWA Gazako zerrendan lan egiten duten osasunaren sektoreko eragile nagusietako bat da oraindik ere, eta pertsonen erdiek baino gehiagok 2023ko urriaren 7tik osasun-zerbitzuak jaso dituzte agentzia horren laguntzarekin. 2023ko urriaren 7tik 2025eko urriaren 5era bitartean, UNRWak **lehen mailako 10,1 milioi kontsulta mediko baino gehiago** egin zituen Gazako zerrenda osoan.



© 2025 UNRWA. Ez da egiletzarik aipatzen argazkilariaren segurtasunagatik.

2025eko urriaren 12an, UNRWArekin 22 osasun-zentroetatik 4 eta aldi baterako osasun-zentro gisa erabilitako beste 3 instalazio bakarrik zeuden martxan Gazan. Gainera, **80 ekipamendu mediko mugikorren** bidezko osasun-zerbitzuak ematen dira, babeslekuen barruan eta kanpoan, 28 puntu medikotan.

UNRWArekin osasun-zentroek lehen mailako arreta eskaintzen dute, zerbitzu anbulatorioak, gaixotasun ez kutsakorren arreta, sendagaiak, haurren txertaketa, jaio aurreko eta jaio ondoko arreta, laborategi- eta odontologia-zerbitzuak, fisioterapia eta zaurituentzako bendajeak barne. Osasun-zentro operatiboen kopurua etengabe aldatzen da eskariaren, sarbidearen eta segurtasunaren arabera.

2023ko urriaren 7tik 2025eko urtarrilaren 19ko su-etena hasi arte, 388.000 familiak baino gehiagok (ia 1,9 milioi pertsona) bi **irin-sorta** jaso zituzten; horietatik 374.000k gutxienez hiru txanda jaso zituzten. Kontuan izan, 2025eko martxoaren 2tik, UNRWAK ez zuela baimenik jaso zazpi hilabete baino gehiagoz laguntza humanitarioa, elikagaiak barne, sartzeko.



© 2025 UNRWA Photo
by Hussein Jaber

2025eko urtarrileko su-etena hasi arte, UNRWak gutxi jota 1,7 milioi pertsonari eman zizkien **elikagai-paketeak**. Horietatik, 215.000k behinik behin elikagai-paketeen 2 txanda jaso zituzten gerra hasi zenetik.

UNRWak, bere elikagai-paketeak banatzeaz gain, NBeko beste erakunde batzuen izenean ere banatu zituen elikagai-sortak, eta 1,4 milioi pertsonarengana baino gehiagorengana iritsi da su-etena hasi aurretik.

Su-eten hori 2025eko urtarrilaren 19an hasi zenetik 2025eko otsailaren 23ra arte, UNRWak **oinarrizko elikadura-laguntza eman zien 2 milioi pertsonari baino gehiagori**.

Iturriak: UNRWA, OCHA, NBIP, UNOSAT, MUNDUKO BANKUA



Lurra defendatzen duten emakume palestinarrak

Atal honetan, lurra defendatzen duten **lau emakume palestinar** ezagutuko ditugu. Horien historiak erakusten dute, gatazka- eta desberdinkeria-testuinguruetan bizi arren, aldaketa soziala gidatu, ingurumena babestu eta berdintasuna sustatzen dutela.

Nahiz eta emakume eta iheslari izateagatik **diskriminazioa** jasan, horien lanak, konpromisoak eta ideiek komunitatearen bizitza hobetzen duten eta ekozidioari aurre egiten dioten irtenbide jasagarriak bultzatzen dituzte.

Kontaketa bakoitzak **QR kode bat** du, zeinak zuzenean bideora sartzeko aukera ematen duen, lekukotzak entzuteko.



Iradokizuna:


- Irakurri testua, testuingurua eta defendatzaile bakoitzaren ekintzak ezagutzeko.
- Eskaneatu QR kodea zure gailuarekin, haren ahotsa entzuteko eta beraren esperientzia irudietan ikusteko.
- Gogoeta egin, taldean edo bakarka, historia bakoitzak planteatzen dituen erronka eta irtenbideei buruz.

Horrela, **irakurketa protagonisten esperientzia zuzenarekin konektatu ahal izango duzu**, haien borroka, lorpenak eta etorkizunerako ikuspegia hobeto ulertzeko.

ISRAA ABUSHABA

Ingurumen-ingeniaria da, eta Gazako zerrendako krisi hidrikoa kudeatzen duen batzordeko kidea.

Israelen erasoaldiak nekazaritza-eremuak desplazatu
kanpamentu bihurtu izana eta ur-faltaren ondorioak aztertzen
ditu.



BISAN ABU HAWASH

Agronomia-ingeniaria da eta loreak landatzeko enpresa bat sortu du anaiekin.

Bere ibilbideari eta esperientziari esker, oso kontziente da emakume palestinarrek lurra etapa guztietan lantzen dutela eta nekazaritza-sektorea ahalduntze- eta berrikuntza-gunea dela emakume palestinarrentzat.



ZISJORDANIA



Lurra defendatzen duten emakume palestinarrek

INAAS AL GHOU

Agronomia-ingeniaria da eta Gazako Nekazaritza Ministerioan egiten du lan.

Inaasek dioenez, Gazako erasoaldiak, zuzeneko ingurumen-inpaktua ez ezik, gosetea eta, epe luzera, suntsipena ere eragiten ditu, eta urteak beharko dira sendatzeko.



BAYAN IQTAIT

Zisjordaniako gazte aktibista bat da, eta etxalde ekologiko baten jabea.

Okupazioak eta baliabide hidrikoen gabeziak jotako testuinguru batean, etxalde ekologiko bat eraiki du, bere komunitatearen lurra, elikadura eta etorkizuna zaintzeko. Gainera, hainbat gazte-mugimendu zuzentzen ditu.



ZISJORDANIA



Lurra defendatzen duten emakume palestinarrak

Eranskina:

IKASGELARAKO
LAN-FITXAK

GATAZKA ARMATUAK ETA JUSTIZIA KLIMATIKOA

Erasoaldi militarrek ingurumenean duten eragina



Gaur egun 100 gatazka armatu baino gehiago daude munduan. Planetan duten ingurumen-inpaktuari buruzko datu guztiak jasotzen ez badira ere, epe luzerako ondorioak nabarmenak dira iraupen luzea duten gatazketan. Bestalde, kontuan izan behar dugu gatazka armatuek eragin zuzen eta epe luzekoa dutela herritarren bizi-baldintzetan.



GAIARI BURUZKO HAUSNARKETAK

Zenbait galdera egin diezazkiekegu ikasleei, gai hauek aitzakia hartuta hausnartzeko: gatazka armatuak, horiek epe luze herriarregan duten eragina eta gerrak ingurumenean eta klima-aldaketan duen inpaktua.

- * Nola txerta dezakegu justizia klimatikoa gerren eta erasoaldi militarren inguruko solasaldi batean? Ingurumenaren defentsak giza bizitzaren defentsarekin lotuta egon behar du.
- * Zer gertatzen da natura-ingurunearekin, laboreekin, ibai eta itsasoekin, faunarekin eta florarekin erasoaldi militar baten ondoren?
- * Gatazka luzeen kasuan, nola uste duzu eragiten diola lurraren leheneratzeari?

NON AURKI DEZAKET INFORMAZIO GEHIAGO HAUSNARTZEN JARRAITZEKO?

No War no Warming. Visualizing Palestine (ING)
<https://www.visualizingpalestine.org/visuals/no-war-no-warming>

Environmental impact of the War (ING)
<https://ceobs.org/how-does-war-damage-the-environment/#>

El negocio de la guerra (GAZ)
<https://vimeo.com/106568457>



ZEIN DA PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUAREN ERREALitatea GAI HONEKIN LOTUTA? ERASOALDI MILITARREK ZER ERAGITEN DUTE INGURUMENEAN?


Israelek Gazaren aurka egindako erasoaldiak giza sufrimendu itzela eta azpiegitura-kalteak ari dira eragiten, baita ingurumen-hondamendia ere.



GAZA

Erasoaldi-kopurua, blokeoa hasi zenetik:

2008-2009/3 aste
2012/8 egun
2014/50 egun
2021/11 egun
2023-2025/2 urte




2023ko urriaren 7tik, Israelgo armadak 1,92 milioi tona CO₂ isuri ditu.

New York eta Londres arteko joan-etorriko 3 milioi hegaldik adina.



Arma kimikoen erabilerak handitu egiten du CO₂ maila, eta baso-soiltzea areagotu.

Bi osagai horiek planetaren tenperatura handitzen dute.



“Gazteok gai gara aldaketa bat sortzeko, gure arrastoa gizartean uzteko eta ezberdintasuna markatzeko”.

Bayan Iqtait

Ezagutu haren eta beste emakume palestinar batzuen lekukotza hemen:
www.defensorasdelatierra.es

URIK GABE EZ DAGO BIZITZARIK

Ura eskura izatea, funtsezko eskubidea



Ura eskuragarri izateko giza eskubidea ezinbestekoa da duintasunez bizitzeko, eta funtsezko baldintza, beste giza eskubide batzuk baliatzeko. Ondasun komuna da, eta bizitzarako funtsezkoa, nahiz eta, maiz eta munduko hainbat eta hainbat lekutan, eskuratzen zaila den luxuzko elementua izan. Ura eskura izateak zerikusia du, halaber, elikadurarekin eta higienarekin. Gaixotasunak ugaritzea ere justizia klimatikorik ezaren parte da.



GAIARI BURUZKO HAUSNARKETAK

Ikasleei zenbait galdera proposa diezazkiekegu, ura eskura izateko eskubideari buruz hausnartzeko: eskubide hori nola urratzen den, sarritan, munduko beste leku batzuetan, edo ura nola bihurtzen den, batzuetan, giza eskubideen borroka kolektiborako arrazoi.

- * Nire egunerokoan, kezka bat da ura eskura izatea ala ez dut horretan pentsatzen?
- * Pribilegiatua sentitzen naiz horregatik, edo horretan ere ez dut pentsatzen?
- * Inoiz pentsatu dut bizitzarako funtsezkoa den elementu bat (adibidez, ura) migratzeko arrazoi izan daitekeela, okupazioaren edo kolonialismoaren aurka borrokatzeko arrazoi bat?
- * Zure ustez, nola eragiten dio lurra berreskuratzeari?

NON AURKI DEZAKET INFORMAZIO GEHIAGO HAUSNARTZEN JARRAITZEKO?

Not enough water in the West Bank.

Visualizing Palestine (ING)

<https://www.youtube.com/watch?v=OQ4bfNulgTM>

Uraren arazoa Gazan (GAZ)

<https://www.youtube.com/watch?v=EPxIZBe5MKA>



NOLAKOA DA GAI HORRETAN LURRALDE PALESTINAR OKUPATUEN ERREALitatea? OKUPAZIOAK BADU ERAGINIK PALESTINAKO BIZTANLEEK URA ESKURATZEKO ORDUAN?



Israelek Zisjordaniako baliabide hidrikoen hiru laurden baino gehiago kontrolatzen du zuzenean.

Israelek Zisjordaniako euri-ura bereganatzen du.



Familia palestinarrek hileko diru-sarreraren erdia inguru erabiltzen dute botilako ura erosteko.



Gazan eskuragarri dagoen uraren % 97 jada ez da egokia gizakiek kontsumitzeko.

Putzuen % 22k bakarrik sortzen dute ura gatz-kontzentrazio onargarriekin.

Egunero Mediterraneoko itsasora isurtzen dira 111 litro hondakin tratatu gabe.


Eguneroko ur-hornidura 3-5 litro pertsona bakoitzeko gutxieneko estandarraren oso azpitik OMEk gomendatutako 15 litro



Gazan 1,2 milioi biztanle ez du ur korronterik.

Zisjordanian, batez besteko kontsumoa pertsona bakoitzeko 73 litrokoa da eta eguna.

OMEk 100 l gomendatzen ditu. Israel 300 l. kontsumitzen ditu. Kolonoak 369 l kontsumitzen dituzte



“Israelen okupazioak gure ur-iturrietara eta putzu artesarien zulaketara sartzea mugatzen du, lurrazpiko eta lurraz gaineko guztia beraien jabetzatzat jotzen delako.”

Bayan Iqtait

Ezagutu haren eta beste emakume palestinar batzuen lekukotza hemen: www.defensorasdelatierra.es

LURRA ESKURA IZATEA

Lurralde eta baliabide naturalen desjabetze, erauzketa eta banaketa desorekatua



Justizia klimatikoaz ari bagara, lursailetarako sarbide desorekatuaz hitz egin behar dugu, munduko hainbat tokitako lurren desjabetzeaz, tokiko biztanleek beren lurak lantzeko dituzten zailtasunez eta, beraz, beren buruak autonomiaz hornitzeko zailtasunez.



GAIARI BURUZKO HAUSNARKETAK

Ikasleei zenbait galdera proposa diezazkiekegu munduko hainbat eskualdetan egiten den baliabide naturalen banaketa desorekatuari buruz hausnartzeko; izan ere, egungo merkatu globalizatuan, lurra lantzen duten pertsonak, askotan, ezin dituzte landutako elikagaiak eskuratu.

- * Zein da jaten ditudan elikagaien jatorria? Beste herrialde batzuetatik badatoz, esportazio horiek orokortuta daude populazio ekoizlearen beharrek?
- * Tokiko ekoizpena jasangarritasunaren etorkizuna bada, nola eragiten zaio ekoizpen horri lurak konfiskatu, pribatizatu edo desjabetu diren lekuetan?

NON AURKI DEZAKET INFORMAZIO GEHIAGO HAUSNARTZEN JARRAITZEKO?

Palestinako komunitate beduinoaren bizitza okupaziopean (GAZ)

<https://www.youtube.com/watch?v=ljOJCeyiuh8>

Lurren konfiskazioa eta laborantzarako murrizketak Zisjordanian (GAZ)


<https://www.youtube.com/watch?v=Wm-DkxFaZZs>



NOLAKOA DA GAI HORRETAN LURRALDE PALESTINAR OKUPATUAREN ERREALitatea? OKUPAZIOAK BADU ERAGINIK PALESTINAKO BIZTANLEEK LURRA ESKURATZEKO ORDUAN?



Britainiar agintaldiaren ondoren eta 2 gerra arabiar-israeldarrak (1948- 1967) biztanleria Palestinak % 22 baino ez du Palestinako lurraldearen historikoa. % 1 Euskal Autonomia Erkidegoan. Gaza eta % 21 Zisjordanian* (Palestinako biztanleria Zisjordanian % 36ko gaurkotasuna).




96.000 m2 lurrik gabekoak denboraldian uzta biltzea Oliba, 2023tik murrizketen kausa Israelgo sarrera.

Galera honen baliokidea da: 1.200 tona baino gehiago oliba-olioaren metrikak




Kolonoen 113 eraso 2023an erregistratutako israeldarrak: Nekazarien aurkako erasoak:

- * Kolono batek tiroz hiltzen du gaztea uzta bildu bitartean
- * 10.000 zuhaitz txikituta
- * Laboreak lapurtzea eta uzta biltzeko tresnak



Konfiskatutako lurak biztanleei Palestina (2020): 337.645m²



“Lan nekazaritza lurarekin gure konexioa indartzen du eta gure erresilientzia sustatzen du”

Bisan Abu Hawash

Ezagutu haren eta beste emakume palestinar batzuen lekukotza hemen: www.defensorasdelatierra.es

DESBERPAREKOTASUN ENERGETIKOA

Baliabide energetikoak eskuratzeko aukera desparekoa, aukerak eraikitze beharra



Klima-aldaketa aurre egiteko, energia-iturri berriak bilatu behar dira. Horretarako, erregai fosilak atzean utzi behar ditugu, eta gutxiago kutsatzen duten eta mugatuak ez diren baliabide berrietan pentsatu. Baina aldaketa horiek ez dira nahikoa izango desparekotasuna suntsitzeko, energia baita planetako desberdinkeria ondoen kuantifikatzen dituen adierazleetako bat. Munduko pertsonarik aberatsenen % 5ek energia gehiago erabiltzen du munduko biztanleen erdi pobreenak baino.



GAIRI BURUZKO HAUSNARKETAK

Ikasleei hainbat galdera proposa diezazkiekegu energia-desberdinkeria buruz hausnartzeko:

- * Guztiok behar ditugu oinarritzko energia-zerbitzu batzuk, gure ongizaterako eta konforterako.
- * Zein dira niretzat bizitza erosorako oinarritzko beharrak?
- * Jabetzen naiz nire ingurunean pobrezia energetikoa pairatzen duten pertsonak egon daitezkeela, diru-sarrera txikien, etxebizitzaren energia-kalitate eskasaren edo energiaren prezio altuen ondorioz?
- * Energiaren arazoa ez da baliabideen eskasia, baizik eta energiaren xahuketa, eta kontsumoaren banaketa globalean dagoen desparekotasun handia. Munduko populazioaren % 20 aberatsenak baliabide energetiko guztien % 80 kontsumitzen dugu.


NON AURKI DEZAKET INFORMAZIO GEHIAGO HAUSNARTZEN JARRAITZEKO?

Kolonia israeldarren eta biztanle palestinarren arteko desberdinkeria Zisjordanian (GAZ)
https://www.youtube.com/watch?v=3yGczB_cZJY

Tired of power cuts, blockaded Gaza turns to solar panels (ING)
<https://www.youtube.com/watch?v=IJhgamUSXLE>



NOLAKOA DA GAI HORRETAN LURRALDE PALESTINAR OKUPATUEN ERREALitatea? OKUPAZIOAK BADU ERAGINIK PALESTINAKO BIZTANLEEK URA ESKURATZEKO ORDUAN?



Gazako zerrenda lurrez, itsasoz eta airez blokeatuta dago.

Israelek kontrolatzen du Gazan sartzen den guztia, sare elektrikoak eta oinarritzko osasun-, ur- eta saneamendu-zerbitzuek funtzionatzeko behar duten erregaia barne.



Zisjordaniak hiru eremu ditu 90eko hamarkadatik: A, B eta C.

C eremuak lurraldearen zatirik handiena hartzen du eta Israelen kontrolpean dago erabat.


C eremuan, Israelek debekatu egiten die palestinarrei sare elektrikoetara konektatzea, eta ukatu egiten die eguzki-energiako sistemak instalatzeko baimenak.

A eta B eremuetan, eguzki-energiako proiektuak suntsitzeaz mehatxatu du Israelek, lege israeldarren arabera lizentziarik ez dutelako.



Egitura egonkor propiorik gabe, Israeldik inportatutako energiaren mende daude palestinarrek.

2020an, Zisjordaniako eta Gazako elektrizitate-horniduraren % 83,8, eta erregai-eskari ia osoa, Israeldik inportatu zen.



“Erregaia garestia da, beraz, nekazal produktuak baserrietatik merkatura eramatea zaila da”

Inas alGhoul

Ezagutu haren eta beste emakume palestinar batzuen lekukotza hemen:
www.defensorasdelatierra.es

HONDAKINEN KUDEAKETA

Giza hondakinen kudeaketa, osasunari lotutako hondakinen kudeaketa



Hondakinen kudeaketa desegokiaren eragin negatiboak desberdin pairatzen dituzte garatzeko bidean diren herrialde eta komunitate batzuek eta besteek. Desparekotasun horien artean egon daitezke, besteak beste, hondakinak kudeatzeko zerbitzuetarako sarbide desegokia, hondakinekin lan egiten duten langile informalak osasuna eta segurtasuna babesteko hornidura mugatu edo hutsala, eta hondakinen kudeaketako erabakiak hartzeko prozesu ez-inklusiboak.



GAIARI BURUZKO HAUSNARKETAK

Ikasleei hainbat galdera proposa diezazkiekegu hondakinen kudeaketari buruz hausnartzeko:

- * Hondakinak ondo kudeatzeak, sailkatzeak eta birziklatzeak herritarren bizi-baldintzak eta ingurumena hobetzen ditu epe luzera, ingurunea kutsatzea prebenitzen baitu.
- * Badakigu zabor-esportatzaileak garena?
- * Nora doa gure ingurunean kudeatzen ez dugun zaborra? Zer ondorio ditu lekuko ingurumenean eta populazioan?
- * Gerra eta erasoaldi militarrek behin eta berriz erpikatzen diren herrialdeetan, desplazatutako biztanleriak badu aukerarik zaborra biltzeko? Baliabiderik ez badute, nola eragiten dio egoera horrek pertsonen osasunari?

NON AURKI DEZAKET INFORMAZIO GEHIAGO HAUSNARTZEN JARRAITZEKO?

Barrier Monitoring Unit: Waste Management (ING)

<https://www.youtube.com/watch?v=6OdkjzfcRU>



NOLAKOA DA GAI HORRETAN LURRALDE PALESTINAR OKUPATUEN ERREALitatea? OKUPAZIOAK BA AL DU ERAGINIK PALESTINARREN LURRERAKO SARBIDEAN?



Hondakin solidoen kudeaketa

Palestinako lurralde okupatuan ez dago araudi bateratu eta egonkorrik hondakinak kudeatzeko.

Gazan, blokeoak ez du materialik sartzen uzten eta hondakin solidoak kudeatzeko azpiegiturak garatzea eragozten du. Zisjordaniako C eremuan, hondakinen kudeaketa israeldarren kontrolpean dago.

Legez kanpoko zabortegei-kopurua hazi egin da, hondakinen kudeaketa txarraren ondorioz. Eta kontrolik ezak eragina du airearen kalitatean eta lurzorua osasunean.



Hondakin-urak:

Zisjordaniako legez kanpoko koloniek 40 milioi m³ hondakin-ur isurtzen dituzte urtero palestinarren bailara eta nekazaritza-lurretan; biztanleria palestinarrek baino 5 aldiz gehiago.

Gazako saneamendu-azpiegituraren suntsiketa eta ondorengo eskasia direla eta, egunero 90 milioi litro hondakin-ur isurtzen ziren tratatu gabe edo partzialki tratatuta, Mediterraneo itsasora.




Erasoaldi militarrek sorturiko hondakinak.

Gazako zerrendan, 2 milioi tona eraipen-hondakin sortu ziren 2014ko erasoaldian.

Guztira, zerrendak 5 erasoaldi militar pairatu ditu blokeatu zutenetik.

2023koa izaten ari da suntsitzaileena. 2024aren amaieran dagoeneko 39 milioi tona obra-hondakinak.



“Kanpamendu bakoitzak, dendako bakoitzak zulo septikoak egin dituzte dendek sortutako hondakin-urak kentzeko, oso era hutsean”

Israa Abushaban

Ezagutu haren eta beste emakume palestinar batzuen lekukotza hemen: www.defensorasdelatierra.es

Nola landu ditzakegu
proposatutako 5
gaiak dinamikoki
ikasleekin?

TALDE-DINAMIKA

Agora plazaren dinamika

Helburu nagusiak:

- Sortzen diren argudioak hainbat ikuspegitatik aztertzea.
- Eztabaida gizarte-jardunbide egoki gisa sustatzea.
- Ideiak birpentsatu eta horien inguruan hausnartzea.

Garapena:

Agora plazaren dinamika ideien konplexutasuna esploratzeko eztabaida-eredu bat da.

Antolatu eremua parte-hartzaileek elkar ikusteko eta entzuteko moduan. Oro har, horrek esan nahi du 15 pertsona edo gutxiago borobilean esertzea zureko aukietan, nahiko ingurune isilean. Banatu lapitz eta paper bana parte-hartzaileei.

Gonbidatu pertsonak gaiari buruzko galdera ireki bat idaztera anonimoki paperean. Jaso galdera guztiak eta irakurri ozen banan-banan taldeari. Eskatu pertsonari elkarriketa zein galderarekin hasi nahi duten bozka dezatela.

Bideratzailea zaren aldetik, sortu partekatzen errespetuzko giro bat, taldeari ideien konplexutasuna esploratzen laguntzeko eta gaia sakonago ulertzen laguntzeko. Zure funtsezko zeregina da elkarriketan behatzaile jardutea, eta parte-hartzaileei parte hartzeko aukera ematea.

Saioan zehar, gidatu zure taldea honela:

- Egin galdera irekiak, taldeak partekatzen duen horretan oinarrituta.
- Iritziak partekatu ordeztuz, galderekin eta zalantzekin behartu gehiago parte hartzera.
- Jakinarazi taldekoei ez dagoela erantzun zuzenik.

Jarduera amaitzeko, gonbidatu guztiak egindako jarduerari buruz talde handian hausnartzera.

- Zure ustez, orain gehiago dakizu gaiari buruz, edo zalantza gehiago dituzu?
- Aldatu da zerbait zure ikuspegiaren eta arazoiketan?
- Zer ikasi duzu beste pertsona bati edo haren pentsaerari buruz?
- Zerk harritu zaitu gure elkarriketan?



Mahai-zapi garbiek ez dute ezer esaten dinamika

Helburu nagusiak:

- Idazketa erabiltzea kontzeptuak transmititzeko, ukatzeko edo berresteko.
- Gai baten inguruan eztabaidatzeko giro egokia sortzea.
- Atzeraelikaduraren bidez pentsamendu kritiko eta gainditzaille bat garatzeko aukera ematea.

Garapena:

Mahai-zapi garbiek ez dute ezer esaten izeneko dinamika, landuko den gaiaren inguruko eztabaida errazten du. Dinamikan, ez da ideien elkartrukerik egongo, kontzeptuak jorratuko dira besterik gabe.

Jarduera hau gauzatzeko, beharrezkoa da landuko den gaiaren inguruan iritzi bat izatea taldekideek. Jorratu beharreko problematika polemikoa izatea gomendatzen da, eta horren inguruan iritzi eta ikuspuntu desberdinak egotea.

Mahai batean, kide bakoitzak *mahai-zapi bat* izango du eskura: nahiko handia izango den orri zuri bat. Bertan, eta orri osoa erabili gabe, gaiari buruz duen iritzia idatzi behar du.

Garrantzitsua da bere iritzian jorratzen ari diren problematika definitzen duten 3 kontzeptu aipatzea gehienez ere. Pertsona bakoitzak minutu bat besterik ez du izango mahai-zapian idazteko.

Jarduera koordinatzen ari denak agindua emango du, denek beren posizioa utzi eta taldekide batek utzitako mahai-zapi batera gertura daitezen. Mahai-zapi horretan, kontzeptu gehiago idatzi ahal izango dituzte, edo berberak, edo, bestela, beste norbaitek mahai-zapian jasotako ideia bati aurka egin ahal izango diote.

Minutu bat igarotakoan, berriz ere agindua emango du, uneko mahai-zapia utzi eta beste batera pasatzeko. Ekintza hori 10 aldiz errepika dezakete, eta, taldea oso handia bada, gehiagotan.

Zati honetan, koordinatzaileak moderatzaile-lanak egin behar ditu, parte-hartzaileek eztabaidatzen duten bitartean.

Hainbat mahai-zapitatik igaro eta bakoitzaren ikuspuntuak idatzita uzteko dinamika amaitu ondoren, eztabaidarako gunea sortuko da. Pertsona bakoitza bere mahai-zapira itzuliko da eta besteek idatzitako guztia irakurriko du ahapeka.

Pertsona bakoitzak zaie gaiari buruz dituzten ideiak eta kontzeptuak komentatzeko, eta aipatzeko irakurri dituzten ikuspuntuetatik zeintzuekin ez datozen bat. Ideia eta/edo kontzeptu bakoitzaren aurrean, zergatia azaldu beharko dute.

Oraindik iritzirik ez duten eta interesgarriak iruditu zaizkien ideiei buruzko ikuspuntuak ere eman ditzakete.



Arrainontziaren dinamika

Garapena:

Arrainontzia talde-eztabaida errazteko formatu bat da, interesa piztu eta parte-hartzea sustatzen duena, arreta aldiko pertsona-talde txiki batean jarrita, eta taldearen osaera dinamikoa ahalbidetuz. Teknika hau oso interesgarria da pertsona askoren arteko eztabaidak antolatzeko, eta solasaldiari ordena eta zentzua emateko.

Gelaren erdian, borobil batean, bospasei aulki jartzen dira, erdialdera begira. Aulki-talde horri esaten zaio arrainontzia. Inguruan, aulki gehiago jartzen dira, barruko borobilaren kanpoaldean, erdira begira.

Lauzpabost partaide (hau da, aulki-kopurua baino partaide bat gutxiago) arrainontziko aulkietan jartzen dira, bat libre utzita. Parte-hartzaile horiek arrainak dira.

Gainerako parte-hartzaileak arrainontzitik kanpoko aulkietan jartzen dira. Horiek behatzaileak dira. Bideratzaile bat arrainontzitik gertu egongo da. Eztabaida eten ez dadin ahalegintzea da haren lana, bai eta arrainontziaren arauak betetzen direla ziurtatzea eta eztabaidan sortzen den edozein puntu interesgarriri buruzko oharak hartzea ere.

Arrainek soilik hitz egin dezakete. Are gehiago, arrainontzian aulki bat libre badago soilik hitz egin dezakete. Edozein unetan, behatzaile batek aurrera egin dezake, eta libre dagoen aulkian jar daiteke. Hori gertatzen denean, eztabaida gelditu egingo da, arrainetako bat bere borondatez erretiratu eta behatzaileen eremura pasatzen den arte.

Edozein behatzaile eztabaidara batu daiteke edozein unetan, aulki hutsean jarriz. Eztabaidan zehar, parte-hartzaileak nahi adina aldiz pasa daitezke behatzaile izatetik arrain izatera.

Arrain bat edozein momentutan erretira daiteke behatzaileen gunera, nahiz eta inor ez jarri aulki hutsean. Kasu horretan, eztabaida gelditu egingo da, behatzaile batek bere borondatez bat egin arte.



